

BIZKAI'KO EUSKERE...

Guk geuk. beti esan izan dogu, bizkaieria barik ezin izan daitekela euskerearen bateratasunik.

Berandu baldin ba'da be, batzuk asi direala konturaten esan geinke.

Urri'ko azken-astelenean, Lopategik eta Jon Enbeita'k, naiz-ta Bizkai'ko euskera jator-jatorra erabilili ez, bizkaieraz ekin eutsen betsoetan. Nozbait konturatu dira, antza, erriari bere izkeTan azaldu bearra doguna.

Or agertu da beste idatzi bat be nolabait bizkaieria aldeztuz (?). Baia, or batzuk azaldu izan direanez, bizkaierazko itzak erabiltea bakarrik ez da bizkaierari bateratze onetan lekua emotea. Aditzak bere badiara Bizkai'ko euskalkitik artu bearrekoak. Esate baterako, egin-etik sortzen direan aditzak: **Diezaioedan** baiño askozaz bere egokiagoa dogu **dagioedan**; **dezaket** baiño **dagiket** eta abar, gureak **egiñetik** bertatik sortuak direalako ta ulerteTrezagoak eta adirazgarriagoak bere bai. Bardin berein esakera ta joskera bere.

Or dabiz, oraingo **euskara-zaleak ari izan** gora ta **ari izan** beera be, gure itz egokiagoak eta askotarikoak bazterturik. Ez ete-doguz, ba, beti **ari izanka** jar-

dun barik **diardut, daragoiot beutsot** eta abar ego-kiagoak, bizkaieraz erabilten doguzanak?

Euskerearen ugaritasun egokiak baztertu eta arau estu-estu batzun barruan ezin izan daiteke adarrik onenak iñausitako euskera gaiztoa baiño: Sortu orduko eriotzara doan izkera ekin eta geixoa.

Izkuntzen bateratasuna idazleen eginberra da, uste-go (teori) asko eta euskal-sen gitxi edo apur7ik bere ez dauken euskerearen **zaintzailleena** barik. Artu daiguzan eredutzat Zaitegi, Ibiñagabeitia, Orixe. Kirikiño, Eguzkitza, Lan-akoetxea ta abar, geure idazle jatorrak eta idatzi eta erabilili daigun zentzunez geure izkuntza maitagarria.

Zentzuneratuko al gara, Nozbait, euskaldunok: Orduantxe bai sortu daiteke euskalki guztiak ontzat artu leikeen benetako euskal-senezko euskerearen bateratasuna. Artean jarrai dagigun bakotzak bere iskelgia alik ondoen edertu, indartu eta zabaltzen.

AURRE-APRAIZ



BALTZAK ETA ZURIAK

Gure mundua bira-biraka dabil eta atzo ona izan zana, gaur txarra biurtzen jaku, eta alderantziz be bai. Aldi baten zuriak Afrika'ra joan ziran eta an nagusitu. Bertakoak ziran baltzak, ezelako eskubide barik geratu ziran eta Europa'tik joandako zuriak eskubide guztiak daukezala.

Orain baltzak etorri nai dabe Europa'ra, ainbeste aundikeri barik, lan eginda eguneroko ogia irabazteko bear-izanak eraginda, eta Europa'tarrak ez dautse izten sartzen.

Eta zer^gaitik azkenengo jokabide au?

Ogia zatitu ezker, guztientzat ez litzakelako elduko.

Orra or euren ogitik emon euskuen baltzak, gaur eurentzat ogi barik!

Noiz elduko ete gara baltzak eta zuriak alkartuta eta daukaguna alkar-banatuta bizi izatera? Amets utsa ete da anaitasun au?

Ego-Afrika'n beintzat aspertu dira norkeri orregaz eta guztiak eskubide bardiñak eukitea eskatzen dabe baltzak eta zuriak.

Baltzak ba-dakigu zergaitik eskatzen daben ori.

Eta zuriak?

Beste errazoi bat dauke. Urreko ta un-iñeko laterriak artu-emonak eta laguntza emoteko, norkeriak kentzea eskatzen dautselako. Azkenean ogiaren arazoa emen be!

MARTIN